

IRIZPEN ZK.: D25-005

IRIZPENA, MANKOMUNITATE BATEK ETXEBIZITZA GUZTIEN UR-KONTSUMOARI BURUZKO DATUAK MANKOMUNITATE HORRETAKO UDALERRI BATI KOMUNIKATZEARI BURUZKOA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateak irizpen bat eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari, goiburuan adierazitako gaiari buruz.

Eskari-idazkian azaltzen denez, Hondarribiko Udalak Mankomunitateari udalerriko etxebizitza guztien ur-kontsumoaren datuak eskatu dizkio, azken zortzi hiruhilekoei dagokienez (2022-2023-2024), honako hauek identifikatuta: ur-kontsumoaren mota, etxebizitzaren zenbakia, finkaren kodea eta helbide zehatza (kalearen kodea, ataria, bis, eskailera, solairua, aldea eta atea). Helburua da “Hondarribian metabolismoa eta etxebizitzaren erabilera eta beharrianak aztertzea” izenburuko azterlana egitea.

Udalaren eskari horren helburua da udalerriko etxebizitzaren erabilera errealearen mapa bat lortzea, uste baitu eroldako datuak ez direla nahikoak. Udalaren iritziz, datuak gurutzatzea ezinbestekoa da etxebizitzaren parkearen erabilerak nolako bilakaera duen aztertzeko, eta antzemandako errealitatearekin bat datorren etxebizitza-arloko politika bat egiteko.

Udalak Mankomunitateari udalerriko etxebizitza guztien ur-kontsumoaren datuak eskatu dizkio azterlan bat egin nahi duelako. Bada, Udalaren ustez, azterlan hori bat dator indarreko araudian ezarrita dagoen udal eskumenarekin berarekin.

Mankomunitateari zalantzak sortzen zaizkio, datuak hala komunikatzea legezkoa den ala ez; horregatik, Agintaritzari honako galdera hauek egin dizkio:

«1.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 3ko 2/2006 Legearen 204. eta 2. artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.a) artikulua, oinarri juridikoa al dira Hondarribiko Udalak lehen azaldu den bezala eskatutako ur-kontsumoaren datuak lagatzeko?

2.- Aurreko galderaren erantzuna ezezkoa izanez gero, gaur egun beste oinarri juridikorik al dago Hondarribiko Udalak lehen azaldu den bezala Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateari eskatutako ur-kontsumoaren datuak lagatzeko?».

BIGARRENA: Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari dagokio egindako kontsultari erantzuteko irizpena ematea, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren abenduaren 21eko 16/2023 Legearen 6. artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduaren (DBEO) 58.3 b) artikuluan ezarrita dagoenaren arabera.



GOGOETAK

I

Datuak babesteko araudiaren ikuspegitik, oinarri honetatik abiatu behar dugu: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua –Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra, alegia; aurrerantzean, DBEO–, 2. eta 4.1 artikuluen arabera, datu pertsonalei aplikatzen zaie, eta, hain zuzen ere, honela definitzen da datu pertsonala: «pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri (“interesdun”) bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago» (DBEOren 4.1 artikulua).

DBEOren babes-esparrutik kanpo geratzen dira pertsona juridikoen datuak, DBEOren bertan zehazten denez: «Erregelamendu honetan beren datu pertsonalen tratamenduari dagokionez ezarritako babesaren eman behar zaie pertsona fisikoei, beren naziotasuna edo bizilekua edozein dela ere. Erregelamendu honek ez du pertsona juridikoei buruzko datu pertsonalen tratamendua arautzen, bereziki pertsona juridiko gisa eraturako enpresei buruzkoena, pertsona juridikoaren izena, forma eta harremanetarako datuak barne». (14. kontuan hartuzkoa).

Beraz, ñabardura bat egin behar da. Hain zuzen ere, etxebizitza baten ur-kontsumoei buruzko informazioa ez da beti DBEOren printzipio eta eginbeharren mendeko datu pertsonal bat; hala, pertsona juridiko baten titulartasuneko etxebizitza baten kontsumoei buruzko informazioa, neurritz kanpoko ahaleginik egin gabe pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarriekin lotu edo erlazionatu ezin bada, hasieran ez litzateke izango datuen babesari buruzko araudiak babestuko informazio pertsonala.

Aldiz, pertsona fisikoekin zuzenean edo zeharka lotu ahal diren ur-kontsumoei buruzko informazioa (pertsona horiek jabe zein errentari izan), Mankomunitateak eskura duen informazio hori bera (beste hainbat zerbitzuen artean ur-hornidurarena ematen baitu), datu pertsonalak dira, eta datu horien tratamendua DBEOren mendean dago erabat.

DBEOren 4.2) artikulua arabera, tratamendua da «datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilita zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea».

Asmoa da Mankomunitateak Udalari udalerriko etxebizitza guztien ur-kontsumoari buruzko datuak komunikatzea, pertsona fisikoei dagokienez; bada, hori datu pertsonalen tratamendua da.

DBEOk xedatzen duenez, datu pertsonalen tratamendua legezkoa, fidela eta gardena izango da, interesdunari dagokionez [5.1.a) artikulua], eta, alde horretatik, datuen tratamendurako legitimazio-sistema bat ezartzen du, 6.1 artikuluan ezarritako oinarri juridikoetako bat betetzea oinarri dela.



Zehazki, eta administrazio publikoek normalean egiten dituzten tratamenduetarako, DBEOren 6.1 artikuluko c) eta e) apartatuen arabera, tratamendua zilegia izango da «tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko», eta «tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko».

DBEOren 6.3 artikulutik ondorioztatzen denez, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak (DPBEDBLO) 8. artikuluan espresuki ezartzen duenez, datu pertsonalen tratamendua DBEOren 6.1.c) eta e) artikuluko oinarri juridikoetako batean oinarrituko bada, lege mailako batek horrela aurreikusi beharko du.

II

Jasotako kontsultan aipatzen da Agintaritza honek emandako irizpen bat, zehazki D19-013 zenbakikoa (CN19-006). Irizpen hartan, beste hainbat auziren artean, ur-kontsumoaren datuen tratamendua aztertu zen, datu horiek eskatzen baitzizkion Udal batek Bizkaiko Ur Partzuergoari, udalerriko etxebizitza hutsei buruzko azterlan bat egiteko.

Hizpidera ekarri dugun irizpen horretan eta kontsulta honetan, udalerriek etxebizitza-arloan dauzkaten eskumenak aipatzen dira. Bada, eskumen horiek lege mailako arau batzuetatik eratorritzen dira; hona hemen lege horiek:

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (17.1.7 artikulua).
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (204. eta 2. artikulua).
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena (25.2 a) artikulua).
- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena, eta 149/2021 Dekretua, ekainaren 8koa, jenderik gabeko etxebizitzari eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzeko neurriei buruzkoa (Legearen 4., 10. eta 64.1 artikulua eta Dekretuaren 4. artikulua).

Etxebizitza bat jenderik gabe dagoela egiaztatze helburuz, udalek konpainia hornitzaileei kontsumoaren datuak (ura, gasa eta argindarra) eskatzeko eta haiengandik jasotzeko gaitasuna dute soilik 3/2015 Legearen eta ekainaren 8ko 149/2021 Dekretuaren arabera, eta hori datuen babesari buruzko araudia erabat beteta, araudi horretan guztian esleitutako eskumenak betetze aldera.

Kontsultan azaltzen den kasuan, Udalak udalerriko etxebizitza guztien ur-kontsumoko datuak eskatuz lortu nahi duen helburua 3/2015 Legearen ezartzen denaz bestelakoa da. Izan ere, helburua da azterlan bat egitea «udalerriko etxebizitzaren erabilera errealean mapa bat lortzeko».

Eta Agintaritza honen irizpen hartan azaldu zenez, datuak beste asmo batekin erabili ahal izateko, beste oinarri juridiko bat beharko litzateke:



«[...] Udalak, jaberik gabeko etxebizitzaren gaineko azterlanaren egiteko, udalerriko etxebizitzaren ur kontsumoaren datuak nahi ditu; eta informazio horren arduraduna Bilbao Bizkaia Ur Patzuergoa da.

Udalak kontsultan azaltzen du jenderik gabeko etxebizitzaren egoeraren gainean egin nahi duen azterlanaren helburua dela Konstituzioaren 47. artikuluko manua betetzea (“botere publikoek beharrezkoak diren inguruabarrak bultzatu eta bidezko arauak ezarriko dituzte, eragingarria izan dadin etxebizitza duin eta egoki bat izateko eskubidea”). Eskubidea Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean dago araututa.

Etxebizitzari buruzko legearen 64.1 artikulua berariaz aurreikusten du administrazio eskudunek eska ditzaketela eta kontuan eduki biztanleen udal erroldako datuak eta beste erregistro publiko batzuetakoak ere bai, bai eta uraren, gasaren eta argindarraren kontsumoak ere, ez ohiko kontsumoak direla-eta, gehiegizkoak ala gutxiegi izateagatik.

Gainera, artikulua horren 2. zenbakiak honakoa xedatzen du: “Artikulu honen 1. paragrafoan adierazitako zerbitzuen konpainia hornitzaileek eta entitate kudeatzaileek derrigor eman beharko dituzte etxebizitzaren erabilera desegokia frogatzeko eskatzen zaizkien datuak, betiere datuen babesari buruzko araudia erabat errespetatuz. Datuak lortzeko orduan eta beste edozein erregistro publikotatik lortutako informazioa tratatzeko orduan ere araudi hori bera bete beharko da”.

Hala ere, zera ohartarazten da: Etxebizitzari buruzko Legearen 64. artikuluan etxebizitzaren erabilera desegokia frogatzeko baliabideak arautzen dira, eta datuen tratamendua legitimatzen da helburu hori lortzeko, 1. apartatuan espresuki azaltzen denez.

Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen 56. artikulua dio etxebizitza jenderik gabe dagoela esango dela, hain zuzen, bi urtez baino luzeago jarraian jenderik gabe egon bada, eta, betiere, etxebizitza ez erabiltzeko arrazoirik izan ez bada, lege honetan edo lege hau garatzeko araudian ezarritako baldintzen arabera.

Horrez gain, 56. artikulua dio etxebizitza bat jenderik gabeko etxebizitzatzat deklaratzeko ebazpenak administrazio prozedura bat izan behar duela oinarrian, eta etxebizitzaren titularrei entzun beharko zaiela prozedura horren barruan.

Etxebizitza bat jenderik gabeko etxebizitzatzat deklaratzeko ebazpenak zenbait ondorio juridiko ditu, eta azpimarragarrienetako bat da jenderik gabeko etxebizitzaren erregistroan inskribatu beharko dela. Erregistroak izaera autonomikoa du eta etxebizitza-gaietan eskumena duen sailaren barruan dago (58.2 artikulua). Etxebizitzaren kontrol eta jarraipenerako tresna aproposa da, eta 3/2015 Legeak aitortzen dituen administrazio-ahalen zerbitzura dago (58.1 artikulua).

(...)

Hori guzti hori kontuan hartuta, esan behar da Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 64. artikulua legitimatzen duela Udala, ur kontsumoari buruzko datuak tratatzeko, etxebizitza bat modu desegokian erabiltzen dela egiaztatzeko helburuarekin. **Ur-kontsumoaren gaineko datuak beste asmo batekin erabili ahal izateko, beste lege-oinarri bat beharko da, eta ez hau [...].»**

Ondasun higiezinaren gaineko zergari buruzko araudia ere aipa daiteke, horren arabera udalek gaitasuna baitute hornidura-zerbitzuen kontsumoko datuen tratamendua egiteko, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginak (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen) 72.4 artikuluan ezartzen dituen baldintzetan, betiere zerga-ordenantza batean aurreikusten bada, eta indarrean dagoen foru araudiarekin bat etorruta.



Udalek etxebizitzaren kontsumoko datuen tratamendua (besteak beste, ur-kontsumoaren datuen tratamendua) egitea, legearen arabera zehaztutako helburuarekin, kasu zehatz batzuetan aurreikusten da espresuki. Bada, kasu horietatik kanpo, udalei etxebizitzaren arloko eskumenak esleitzen dizkieten gainerako arauak, gorago aipatu diren horiek, bereberez ez lukete babestuko kontsultaren xede den tratamendua.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko martxoaren 5a